



2021EKO EKAINA

# EGOERA BERRITIK IRAUNKORTASUNERA

ESKOLAKO AGENDA 2030 PROIEKTUAREN BAITAN EGINDAKO  
EKINTZAK ETA JASOTAKO ONDORIOEN BOLETINA



## PROIEKTU BERRIA: ESKOLAKO AGENDA 2030

Eskolako Agenda 2030 proiektuak garapen iraunkorreko hezkuntza bultzatzen du eta, horretarako, 17 helburu ezarri ditu mahai gainean hurrengo ikasturteetan lantzen joango garenak.

2020/2021 ikasturtea egoera berriko lehena izan denez, proiektu berriarekin hasteko aukera baliatu dugu gai orokor hau jorratuz: "egoera berritik iraunkortasunerantz".

Adituek diotenez, pandemia honek lotura zuzena du mundu osoko bioaniztasuna galtzearekin, horregatik, gure herriko naturara gerturatu gara eta ikusi dugu zeintzuk diren eskaintzen dizkigun zerbitzuak eta zeintzuk jasaten dituzten eraldaketak.





“

## Txertorik onena natura zaintzea



## INGURUMEN ERALDAKETAK EZAGUTZEN

Gure ikerketa eremua izan dira: Musakola, Meatzerreka eta Udala auzoak. Bertako ondare naturala ezagutu dugu honako toki hauetan: Antoniñako istingan, Hidal gobason eta San Balerioko harizti gazteetan, Urzulo iturburuan, Montzon koban eta Udalako artadietan.

Herrian ikusi ditugun baso-berreskuratzeak bide onetik doaz eta jabetu gara asko dela eskaintzen digutena: kalitatezko airea, elikagaiak, ur garbia, kultura, aisialdirako lekuak, ingurumen hezkuntza, etab.

Horregatik, komeni zaigu ekosistema hauek orekan mantentzea, etorkizuneko arazoak ekiditeko. Izan ere, ikasi dugu ekosistema batean espezie guztien arteko loturak daudela, eta beraz, kanpo eragin bat dagoenean (deforestazioa, ehiza, klima aldaketa...) desoreka sortzen dugula eta ondorio larriak pairatu ditzakegula. Koronabirusaren gaitza izan daiteke adibide bat.

Ohartu gara, gure herrian asko direla gizakiak ingurumenean eragiten dituen eraldaketak: harrobiak, errepideak, eraikuntzak, AHT obrak eta egur landaketak, esaterako.

Landaketen artean aztertu dugu gero eta ohikoagoa dela eukaliptoak landatzea pinuaren ordean eta horrek arduratu egiten gaitu. Larriak baitira eukaliptoak sortzen dituen ingurumen kalteak: sute arriskua handitzea, lurzorua higadura, uholde arriskua, lurzorua lehorte eta pobretzea; edota bioaniztasunaren galera, besteak beste.

EAEn asko dira galzorian dauden animalia eta landareak; saguzar espezie asko, bisoi europarra, ugatza edota arkanbelea. Horrek habitaten suntsitzearekin du lotura zuzena.





## PLASTIKOEN ATZETIK ORAINGOAN ERE

Arrasateko kaleetan zehar murgildu gara aztertzeko zenbat plastiko dagoen lurrean eta nolakoa den plastiko hori.


Kale, parke, plaza eta errekak aztertuta aurkitu dugun plastikoen artean gehienak izan dira zigarrokinak, litxarrera poltsak eta plastikozko poltsak; denak ere erabilera bakarreko plastikoak eta oso kutsakorrak.

Konturatu gara plastiko gehiegi erabiltzen dugula eta herritarrek askotan ez dituztela ongi bereizten beraien hondakinak.

Ondorioz, urtero, munduan 8 miloi tona plastiko isurtzen dira itsasora, gehienak gurea bezalako herrietatik iristen dira, ibaien bitartez.

Plastiko hori itsas-animalientzat kaltegarria izateaz gain, kate trofikoan sartzen ari da eta gure osasunean ere eragiten ari da.

Horrekin lotuta, konponbideak bilatzen saiatu gara.



# PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK ADIERAZTEKO ORDUA

Herriko diagnostikoa osatu eta gero, Arrasate Herri Eskolako, Arrasate Institutoko eta Arizmendi Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak ados jarri gara honako proposamen eta konpromisoak idazten eta zuen aurrean azaltzen:

## **Arrasateko Udalarari hurrengo hau proposatu nahi diogu:**

1. Aurrekontu gehiago jartzea ingurumena berreskuratzeko proiektuetarako. Adibidez, San Balerion egin dena bezalako proiektu gehiago habian jartzea; lurra erosiz eta auzolanen bitartez zuhaitz landaketak eginez.
2. Herritarrei udalerriko natura eta errekeratutako leku hauek ezagutzera emateko eta naturaren balioaz jabetzeko irteerak antolatzea.
3. Abiadura Handiko Trenak sortutako kalteak gutxiagotzeko zerbaitegitea.
4. Eukalipto landaketak egiteko zailtasunak jartzea dakarten ingurumen arazo larriengatik eta laguntzak eskaintzea bertako zuhaitzak landatzen dituenari.
5. Udalaitzek daukan balio naturala ezagutzera ematea eta babesa ematea eremuari.
6. Mendietan jateko eta egoteko mahai gehiago jartzea.
7. Monterronen beste iturri bat jartzea, zakarrontzi eta eserleku gehiago. Sentsibilizazio kanpainak abiatzea parkeen erabilera egokia lortzeko eta zuhaitz eta hegaztien izenarekin kartelak jartzea.
8. Herri barruan berdegune gehiago sortzea eta zuhaitzak landatzea kaleetan; adibidez, San Andres auzoan.
9. Montzon koba eta beste batzuk garbitzeko auzolanak antolatzea.
10. Bertako produktuak kontsumitzeko kanpainak egitea: baserriarren azokak indartu, laguntzak, etab. Merkatal gune handi berriak egiteko zailtasunak jartzea.
11. Herri barruko bidegorriak lotzea bizikleta erraztasunez erabiltzeko, adibidez, Uribarri eta San Andres auzoetatik Musakolaraino. Espaloiak zabaltzea oinezkoen eremua erosoagoa bihurtzeko, adibidez, Gipuzkoa Etorbidean eta Otalora Lizentziatua kaleetan, azken horretan erdiko medianatik autoak kenduz.
12. Sentsibilizazio kanpainak egitea herritarrei gogorarazteko zakarrontziak erabili behar direla, hondakinak nola gutxitu daitezkeen eta birziklatzea garrantzitsua dela. Gainera, zaborrontzi gehiago ipini dezazuela Arimazubiko patioan, Arimazuri plazan, Munarreko plazan eta Santa Teresan.



## **Gure aldetik, honako konpromiso hauek hartzeko prest gaude:**

1. Naturan zaborrik ez botatzea eta mendi ibilaldietan zaborra jasotzea.
2. Erabili eta botatzeko produktuak ez aukeratzeko (musukoak, lastotxoak, puxikak,...)
3. Ibaiak garbitzeko edo zuhaitzak landatzeko auzolanak antolatzen direnean parte hartzea.
4. Gure egunerokoan plastiko gutxiago erabiltzea, baita hamaiketako biltzeko ere.
5. Behar duguna bakarrik erosi eta erabiltzea (papera, ura, argia...).
6. Elikagaiak nondik datozen eta nola eginda dauden begiratzea eta bilduki gutxiago duten produktuak erostea. Aurrez prestatutako elikagaiak ez erostea.
7. Herriko berdeguneetako landareak, animaliak eta hiri-altzariak errespetatzea.
8. Poltsak erabiliz gero, berrerabili eta bestela oihalezkoak erabiltzea.
9. Txutxeak erosten ditugunean erabiltzen dugun plastiko berriz ere erabiltzea.
10. Herri barruan oinez, bizikletaz edo patinetek mugitzea.
11. Ekimenak antolatzea gure ingurugiroa ezagutzera emateko helburuarekin.